

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIALANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

“Kirola eta euskara, hausnarketak eta erronkak” jardunaldia antolatu dute apirilaren 27rako NKGIk eta Euskarabideak

CEIMD Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroan egingo da jardunaldia, 10:00etatik 18:00etara

Asteartea, 2017.eko apirilak 18

Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak eta Euskarabidea Euskararen Nafarroako Institutuak "Kirola eta euskara, hausnarketak eta erronkak" izenburua duen jardunaldia antolatu dute apirilaren 27rako, osteguna; euskara hutsez izango da jardunaldia CEIMD Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroan (Iruñeko Larrabide estadioan, Zangoza kaleko 34. zenbakian), 10:00etatik 18:00etara. Apirilaren 23ra arte dago zabalik izena emateko epea.

Udaletako kirol eta euskara teknikariei, kirol-taldeetako arduradunei eta entrenatzaileei, kirol federazioetako teknikariei, ikastetxeetako kirol-taldeetako arduradunei, guraso elkarteetako kideei, Heziketa Fisikoko profesionalei eta interesa duen beste edonori zuzenduta dago jardunaldi hori.

Goizeko hamarretan emango zaio hasiera [egitarauari](#); jardunaldien aurkezpena egingo dute Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaile Ruben Goñik eta Euskarabideako zuzendari Mikel Arregik. Jarraian, "Kirola: euskararen ikaskuntzarako hezkuntza-baliabideak", "Kirola, haurrak eta gazteak euskaraz sozializatzeko tresna" eta "Euskara kirolean: markak eta erronkak" hitzaldien txanda izango da.

Ondoren, 14:00etan, bazkaria egingo dute, eta 16:00etan, hainbat esperientzia positiboren azalpenaren ondoren, "Kirolaren eta euskararen arteko harremanak" deritzon mahai-ingurua egingo da.

Gehienez 100 lagunek parte hartu ahal izango dute jardunaldian, eta izena emandako ordena errespetatuko da.